**ALKATETZAREN PROPOSAMENA – ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

Kirol Patronatuan bertan zerbitzua hobetzearen inguruan egin diren gogoetak aztertuta, espero zen harrera izan ez duten kirol-jarduera batzuk kentzea planteatzen da, eta jarduera berri bat sartzea, matrikulazio aldetik arrakasta handiagoa izaten ari diren beste batzuekin lotua.

Proposatzen da, bestalde, Orbea kiroldegian eskaintzen den SPA zerbitzua enpresa lizitatzaile batek kudeatzea, eta zerbitzu horien tarifak —Zerbitzu Publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko Tasen Ordenantzan jasoak— bertan behera geratzea.

Halaber, jubilatuen familien abonuiei dagokienez —gaur egun biak izan behar dute jubilatu abonu familiarraren onuradun izateko— Patronatuak proposatzen du kontuan hartu daitezela langabezian egon eta pertsona jubilatu baten ezkontide direnak, aukera emanez, —bakarrik abonuen kasuen eta ez jarduerako tarifen kasuan—, jubilatuen tarifa familiarra izateko.

Azkenik, izendapen-aldaketak planteatzen ditu nahasketa eragiten duten jarduera jakin batzuetan, bai eta eranskinaren puntu batzuk argitzea ere.

Hau horrela izanik, beharrezkoa izango litzateke aldatzea zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio-jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen Udaleko Kirol Patronatuaren Ordenantzaren tasei lotutako eranskina, hala, proportzionaltasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioa betez.

Eraginkortasun-printzipioa aplikatuz, aldaketa hauekin beharrezkoak ez diren administrazio-kargak saihestu nahi dira eta tasak aplikatzerakoan baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatu.

Proposamen hau, eta baita azkenean onartzen den araudia ere, Eibarko Udaleko webgunean

**PROPUESTA DE ALCALDIA – TASAS POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS.**

Analizadas las reflexiones que, en el propio Patronato de Deportes, se han dado respecto a la mejora del servicio, se plantea la supresión de determinadas actividades deportivas que no han tenido la acogida esperada y la inclusión de una nueva actividad relacionada con otras que están siendo de mayor éxito en cuanto a matriculación.

Se propone, por otro lado, que el servicio de SPA que viene ofreciéndose en el polideportivo de Orbea pase a ser gestionado por una empresa licitadora y dejen de regir las tarifas de la Ordenanza de Tasas por Prestación de Servicios Públicos y Realización de Actividades Administrativas relativas a dichos servicios..

Asimismo, se propone desde el patronato que en lo relativo al abono familiar de jubilados, para el que actualmente se exige que ambos sean jubilados para poder beneficiarse del abono, se tenga en cuenta a las personas que, estando en paro, son cónyuges de persona jubilada, posibilitando que, solo respecto a los abonos y no respecto a las tarifas por actividad, puedan acogerse a la tarifa familiar jubilados/as.

Por último plantea cambios de nomenclatura de determinadas actividades que en la actualidad llevan a confusión, asi como la aclaración de determinados puntos del anexo.

Siendo esto así, sería necesario modificar el anexo relativo a las tasas del Patronato Municipal de Deportes de la Ordenanza reguladora de las tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas, cumpliendo así con el principio de proporcionalidad y de seguridad jurídica.

En aplicación del principio de eficiencia, estas modificaciones pretenden evitar cargas administrativas innecesarias y racionalizar en su aplicación la gestión de los recursos públicos.

Esta propuesta, así como la normativa que definitivamente se apruebe, serán publicadas

argitaratuko dira ahalbidetzeko, batetik, indarraldiko araudia eta prozesuko dokumentuak edonoren esku eta modu erraz eta eguneratuan izatea, eta, bestetik, hartzaile izango direnek parte hartze aktibo bat izatea arauak egitean; hori guztia gardentasunaren printzipioan oinarriturik

en la página web del Ayuntamiento de Eibar para posibilitar, por una parte, el acceso sencillo, universal y actualizado a la normativa en vigor y los documentos propios de su proceso de elaboración y, por otra, para que los potenciales destinatarios tengan una participación activa en la elaboración de las normas, todo ello en base al principio de transparencia.

Horregatik guztiagatik eta Kirol Patronatuak egindako azterketan oinarrituta, **PROPOSATZEN DUT:**

Por todo lo anterior y en base al análisis efectuado por el Patronato de Deportes, **PROPONGO**:

1.- Udalaren Kirol Patronatuari dagokion eranskinetik honako zerbitzu hauek **kentzea:**

- FIT DANCE
- SENIORS KIROLAK BARIXAKUAK
- GIMNASIA AULKIAN NAGUSIAK
- ERLAXAZIOA
- INTEGRAL FIT
- PILATES ESTUDIOA
- MULTIJARDUERAK
- KIROL BARIXAKUAK HELDUAK ETA GAZTEAK

1º.- **Eliminar** del anexo referente al Patronato Municipal de deportes los siguientes servicios:

- FIT DANCE
- DEPORTE SENIORS VIERNES
- GIMNASIA EN SILLA MAYORES
- RELAJACIÓN
- INTEGRAL FIT
- ESTUDIO PILATES
- MULTIACTIVIDADES
- VIERNES DEPORTIVOS ADULTOS Y JÓVENES

2.- Udalaren Kirol Patronatuari dagokion eranskinetik honako zerbitzu eta tarifa hauek **gehitzea**:

| STRONG BY ZUMBA | HILABETEA |
|---|---|
| • Abonatuak | 40,70 € |
| • Abonatu ez direnak | 58,20 € |

2º.- **Añadir** al anexo referente al Patronato Municipal de deportes los siguientes servicios y tarifas:

| STRONG BY ZUMBA | MES |
|---|---|
| • Abonados/as | 40,70 € |
| • No abonados | 58,20 € |

3.- Udalaren Kirol Patronatuari dagokion eranskinetik honako zerbitzu hauen izendapenak **aldatzea:**

- UR ERREHABILITAZIOA izendatzetik BIZKAR OSASUNTSUA URETAN izendatzera pasatuko da.
- ACUARUNNING-PILATES izatetik 1-2-3 ACUARUNNING izatera igaroko da

3º.- **Modificar** la nomenclatura de los siguientes servicios del anexo referente al Patronato Municipal de deportes:

- REHABILITACIÓN ACUÁTICA pasará a LLAMARSE AQUAESPALDA.
- ACUARUNNING-PILATES pasará a llamarse 1-2-3 ACUARUNNING.

4.- Unbeko kirol instalazioen doako erabilera dela-eta abonatuen eskubideei dagokien epigrafean, “Goialdeko futbol-zelaia, larunbat, igande eta jai-egunetan 12:30etik 14:30era” dioen lekuan honako hau esan dezala: “Goialdeko futbol-zelaia, larunbat, igande eta jai-egunetan 12:30etik 14:30era, zerbitzuaren premiak izan ezik”.

4º.- Que en el epígrafe relativo a los derechos de los abonados respecto al uso gratuito de las instalaciones del complejo deportivo Unbe, donde dice “Campo de futbol superior sábados, domingos y festivos de 12:30 a 14:30” pase a decir “Campo de futbol superior sábados, domingos y festivos de 12:30 a 14:30, salvo necesidades del servicio”.

5.- SARREREI dagokien epigrafean eta SPA ZIRKUITUAri eta SPA BONUari dagokionez, honako zehaztapen hau gehitu dadila:

*“Tarifa hau bakarrik aplikatuko da patronatuak modu zuzenean kudeatzen duenean zerbitzua”.*

5º.- Que en el epígrafe elativo a ENTRADAS y en lo que se refiere a CIRCUITO SPA Y BONO SPA, se añada la siguiente puntualización:

*“Esta tarifa únicamente será de aplicación cuando el servicio sea gestionado de manera directa por el patronato”.*

6.- Abonuen modalitateei dagokienez, bai orokorrak bai kanpoko igerilekuetarako udakoak, eta jubilazioagatik eta langabeziagatik hobariak dituzten abonuei dagokienez, hau dioenean “(1)Hobaria duten jubilatuen eta langabeen abonu familiarretan, ulertzen da bi ezkontideek jubilatu edo langabetu baldintza betetzen dutela” honako hau esan dezala: “Nolanahi ere, langabeen kasuan baldin eta ezkontidea jubilatua bada, orduan langabeak —soilik abonuak, ez jarduera bakoitzeko tarifa— jubilatu modalitateko abonu familiarra eskuratu ahalko du; kasu horretan, langabe-baldintza betetzea urtero berrikusiko da".

6º.- En cuanto a las modalidades de abonos, tanto general como de verano para las piscinas descubiertas, y respecto a los abonos bonificados por jubilación y desempleo, donde dice “(1) En los abonos bonificados familiares de jubilados/as y parados/as, se entiende que ambos cónyuges cumplen la condición de jubilados/as o parados/as” añadirle que “No obstante, las personas paradas cuyo cónyuge esté jubilado/a podrán acceder, solo en cuanto a abonos y no respecto a tarifas por actividad, al abono de familiar de jubilado, caso en el que el cumplimiento de la condición de parado se revisará anualmente”.

Eibarren 2018ko irailaren 5an

Alkatea
Miguel de los Toyos Nazabal

En Eibar a 5 de septiembre de 2018

El Alcalde
Miguel de loa Toyos Nazabal